

PRESTAKUNTZA ARLOA:	Biztanleria-Berdintasuna
MODALITATEA:	Lineakoa
HIZKUNTZA:	Gaztelania

## EL USO IGUALITARIO DEL LENGUAJE EN NUESTRA COMUNICACIÓN

KODEA

2019-26-0-6

### INFORMAZIO OROKORRA

**IRAUPENA** 15 ordu **IKASTARORAKO SARBIDEA** <http://autoprestakuntza.euskadi.eus>

**HARTZAILEAK** Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoetan lan egiten duten enplegatu publikoak

**ESKAKIZUNAK** - Posta elektronikoaren kontu bakar bat ikasleko.  
-Administrazio Orokorreko langileentzat: posta elektronikoaren kontu bat, posta sare korporatibokoak ez diren posta-zerbitzarietara bidaltzeko eta zerbitzari horietatik jasotzeko aukerarekin. Ez dira baliozkoak izango mezuak soilik sare korporatiboaren barruan bidali eta jaso ditzaketenak.

**ESKAKIZUN TEKNIKOAK**  
SOFTWAREA:  

- Windows XP edo berriagoa
- Nabigatzaileak: Internet Explorer 8, Mozilla Firefox edo Chrome eguneratuak
- Pantailaren bereizmena: 1024 x 768 (gomendatua)
- Adobe Flash Player 10 edo berriagoa
- Acrobat reader 8 edo berriagoa (gomendatua)
- Internetarako konexioa eta Youtube zerbitzuko atzipena zabalik

HARDWAREA:  

- PC Pentium III edo berriagoa
- Soinu-txartela
- Entzungailuak edo bozgorailu independenteak

**TUTORETZAK**  
Tutorearen egitekoak:  

- Ikasleei plataforman ongi-etorria emateko mezu bat bidaltzea.
- Kontsultei erantzutea:
  - ikastaroaren edukiari buruzkoak, plataformako foroaren bidez
  - 24 orduko epean erantzutea
- Ikaskuntzaren jarraipena eta ebaluazioa egitea.

HILA	HASIERA	AMAIERA	ADMINISTRAZIO OROKORRA		BESTE ADMINISTRAZIO BATZUK	BAJEN JAKINARAZPENAK (ez dakar matrikula-kosturik)
			ESKATZEKO AZKEN EGUNA	ONIRITZIA	ESKATZEKO AZKEN EGUNA	
MARTXOA	Martxoaren 4a	Martxoaren 22a	Otsailaren 4a	Otsailaren 5etik 8ra	Otsailaren 8a	Martxoaren 1a arte

### ZER LORTU NAHI DA?

**HELBURU OROKORRAK**

- Emakumeak baztertzeko, baliogabetzeko eta diskriminatzen dituen hizkuntza bat erabiltzeko pertsona guztiontzat izan dezakeen eraginari buruzko hausnarketarako espazio bat irekitzea.
- Giza Eskubideak errespetatzen dituen hizkuntza erabiltzea bultzatzea
- Idatzizko nahiz ahozko hizkuntzan erabilera sexista eta androzentrikoak hautemateko tresnak hornitzea.
- Diskriminaziorik gabeko estiloak proposatzea.
- Hizkuntza aldatzeko premiari buruz sentsibilizatzea berdintasuna eta integrazioa ezaugarri dituen gizarte bat erdieste aldera.
- Jarduera Onen berri ematea

**GAITASUNAK**  
Prestakuntza-ekintza amaitzean, ikaslea gauza izango da:  

- Hizkuntza baztertzaila eta androzentrikoaren erabilerak dituen ondorioak ezagutzea.
- Hizkuntza inklusiboa erabiltzeko arrazoen aitortza baliozko alternatiba gisa, modelo tradizionalaren kalterako maskulinoa orokortzaile faltsu modura erabiltzen duena.
- Idatzizko nahiz ahozko hizkuntzan erabilera sexista gutxitzeko hainbat jarraibide ezagutzea

## EL USO IGUALITARIO DEL LENGUAJE EN NUESTRA COMUNICACIÓN

- Hizkuntza inklusiboaren erabilerari buruzko jardun onak aitortzea.

### PROGRAMA ETA EBALUAZIOA

#### METODOLOGIA

Autoprestakuntzako ekintza honek bi ardatz nagusi ditu: plataforma birtuala eta tutoretzak. Ikaskuntzaren oinarrian, sistema dinamikoa bat dago, ikasleek aktiboki parte har dezaten; tutoreak gidatzen du ikaslea, eta ikasleak, berriz, banakako lana eginez eta elkarlanean arituz ikasten du. Ikastaroak 8 gai ditu, eta jarduera desberdinak.

Ikasleen ikastaldia osatzeko bideak: ikastaroko dokumentaziora eta irakurtzeko esteketarako sarbidea; foroetan parte hartzea; ariketa praktikoak eta galdetegiak egitea, eta tutorearekin beti harremanetan egotea, plataformaren bidez.

- Komunikazioaren oinarriko alderdiak Hizkuntza: erreflexua, bitartekoa, produktu soziala, kultura helarazteko eta sozializatzeko bidea.
- Hizkuntzaren performatibitatea. Hizkuntza Giza Eskubideen ikuspegitik
- Sexismoaren eta androzentrismoaren definizioa Sexismo soziala eta Hizkuntza-sexismoa
- Hizkuntzaren erabilera sexistan betetzen diren akats nagusiak eta zein mekanismorekin:
  - Isiltasuna, emakumeen ikusezintasuna (maskulinoa erabiliz, "hombre" hitza erabiliz orokortzaile modura eta semantika-jauzia eginez; gaztelaniaz).
  - Emakumeekiko gorroto "mesprexua" (itxurazko dualen bidez, hutsune lexikoen bidez, estereotipo sexisten bidez, tratamenduen erabilera asimetrikoa, hiztegiak, lanbideetan marka femeninoa jartzeari muzin eginez, esamoldeak, esaerak; gaztelaniaz).
- Hizkuntzan sexismoa hautematearen garrantzia eta hizkuntza modu sexistan ez erabiltzearen aldeko borroka feministaren ibilbide historiko laburra.
- Administrazio-hizkera:
  - Administrazio-hizkeraren ezaugarriak.
  - Administrazio-hizkeraren izaerari eta erabilera diskriminatzaileari dagokionez dituen ondorioei buruzko balioespenak.
  - Zenbait proposamen alternatibo.
  - Karguak, lanpostuak, lanbideak eta ofizioak.
  - Erabiltzaileak eta trataerak.
  - Hitzen ordena eta alderdi semantikoak.
- Berdintasunezko hizkuntza bat erabiltzeko jarraibideak. (lupa bioleta)
- Jardun onak arlo honetan.

#### PROGRAMA

Ebaluazioaren **helburua**: ikastaroaren helburu orokorrak eta espezifikoak bete direla bermatzea. Ikastaroaren ebaluazioan, **8 kasu praktikoa** daude. Jarduera batzuk on-line egin behar dira, eta beste batzuk, pc-an, gero plataforma birtualean jartzeko; tutoreak zuzenduko ditu, plataformatik, eta lanaren feedback bat itzuliko du. Jarduerak egiteko epeak orientagarriak dira; tutoreak finkatuko ditu, eta plataformako egutegian ikusi ahaliko dira.

#### EBALUAZIOA

#### IKASTAROAREN BALORAZIOA

Ikasleen gogobetetze-inkesta eta Irakaslearen balorazio-inkesta.

Posta elektronikoaren bidez, inkestaren lotura jasoko duzu, bete dezazun.

**Aprobetxamenduaren ziurtagiria** lortzeko **betekizunak**:

- Gutxienez ikastaroko **6** jarduera gaindituta izatea.

#### ZIURTAGIRIA

**Ziurtagiri digitala** eskuragarri izango duzu posta elektronikoan jakinarazpena jasotakoan. Sartu "IVAPekiko izapideak", "Ziurtatzeak" atalean.

**107€**

#### PREZIOA

AGINDUA, 2014ko abenduaren 11koa, Herri Administrazio eta Justiziako sailburuarena, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak ematen dituen jarduera eta zerbitzuen prezio publikoen zenbatekoa ezartzen duena.(Abenduaren 30eko EHAA, 248. zk.)

**Laguntza teknikoa** behar izanez gero:

#### LAGUNTZA

- Deitu CAUko telefono zenbakira (945016) **440**
- Astelehenetik ostiralera, 08:00etatik 20:00etara

**Aministrazio-gaiekin** lotutako kontsultak egiteko: [prestakuntza@ivap.eus](mailto:prestakuntza@ivap.eus)